



**2022KO AZAROAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko azaroaren zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2022ko urriaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean ospatuko ez zenez, alkatetzaz onartutako berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 57 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espediente-an dagoena, HOGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT euro ETA LAUROGEITA BAT zentimo (27.861,81 €)takoa onartzea erabaki da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- **Lazkaoko Musika Bandari**

2022an aurreikusitako dirulaguntzaren %40a, hau da 1.200 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2022 partidatik egingo da.

- **Gurutze Gorriari.-**

2022rako aurreikusitako dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da 2.500 €, orain ordaintzea. Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.03.231.00 2022 partidatik egingo da.

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2€ ematearen irizpidea jarraituz, orain bakoitzari 6.184 €ren pareko bigarren zatiaren ordainketa egitea.

2021 urteko biztanleria kontuan hartuta, 6.007 izanik, guztira 12.014 €ko diru laguntza dagokie. Baina lehen zatiaren ordainketa egiteko 2020 urteko biztanleriaren datua erabilienez, 5.830 € ordaindu zitzaizkion bakoitzari. Beraz lehenengo zatian falta ziren 177 €ak gehi 6.007 €, 6.184 €ko kopurua dagokio orain bakoitzari.

Ordainketa 2022ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

V.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

| Merkataria | Zenbatekoa |
|-------------------------------------|-------------------|
| PELLO BIDEGAIN | 955 € |
| OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI) | 500 € |
| OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI) | 100 € |
| ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO) | 1.200 € |
| AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT) | 1.325 € |
| AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT) | 445 € |
| JAUREGI ELEKTRIZITATEA | 2.425 € |
| MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA) | 6.760 € |
| AINITZE KORTA (MISZELANIA) | 380 € |
| GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.) | 975 € |
| AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.) | 800 € |
| XABIER BARANDIARAN (OSATU) | 815 € |
| MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR) | 205 € |
| GERRIKO SL | 585 € |



| | |
|----------------------------------|--------------------|
| AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA) | 240 € |
| RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI) | 220 € |
| OLATZ RISCO URSUA (PARAFARMAZIA) | 190 € |
| JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA) | 275 € |
| NAGORE COLORADO... (MANAKO) | 3.085 € |
| MARIANA OSTERGAG (MAMUFO) | 70 € |
| GUZTIRA | 21.550,00 € |

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

VI.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei seigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

| Baserritarra | Zenbatekoa |
|----------------------|-------------------|
| Iker Sukia Mesas | 450 € |
| GUZTIRA | 450 € |

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik edota erregurik izan.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.


LAZKAOKO
UDALA